

EBAZPEN BATZORDEAREN

BILERAREN

AKTA

Bilbao, 2016ko maiatzaren 10a

Bilbon, 2016ko maiatzaren 10eko 17:00etan, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan honako hauek biltzen dira: Juan Luis Ibarra Robles jauna, Ebazpen Batzordeko lehendakaria eta bertako kideak direnak, hots, Andres Maria Urrutia Badiola jauna, Javier Balza Aguilera jauna, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jauna, Jose Ramon Bengoetxea Caballero jauna, Kepa Bilbao Gaubeka jauna eta Maria Carmen Agoues Mendizabal andrea. Era berean, Batzordeko idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre andrea bertaratu da. Hona hemen hartu dituzten

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- BATZORDEAREN EGOITZAN SARTU DIREN IDAZKIEN AZTERKETA 1/2016, 2/2016 ETA 3/2016 ESKUMEN-ARAZOEI DAGOKIENEZ, ZEINTZUK BIZKAIA, ARABA ETA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIEK AURKEZTU BAITITUZTE “ARABA, BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO HERRITARRAK AHALDUNTZEKO” LEGE-PROPOSAMENAREN AURKA.

Idazkari andreak aipatutako eskumen-arazoei buruz Batzordearen egoitzan sartu diren idazkien berri eman du:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren Letraduburuak apirilaren 5ean aurkeztutako alegazio-idazkia. Bertan aurkeztutako eskumen-arazoak metatzearekin ados dagoela adierazten du eta 2/2016 eta 3/2016 eskumen-arazoetako alegazioak bere egiten ditu bere alegazioekin bat datozen bitartean.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

2.- 2016ko apirilaren 12an Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak aurkeztutako alegazio-idazkia. Bertan, aurkeztutako eskumen-arazoak metatzearekin ados dagoela adierazten du.

3.- 2016ko apirilaren 21ean Arabako Batzar Nagusietako Letradu Nagusiak aurkeztutako alegazio-idazkiak. Berorietan, funtsean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako idazkietan azaldu eta eskatutakoarekin bat egiten du, eta aurkeztutako eskumen-arazoak metatzearekin ados dagoela adierazten du.

4.- 2016ko apirilaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak alegazio-idazkiak aurkeztu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak hurrenez hurren aurkeztutako 1/2016, 2/2016 eta 3/2016 eskumen-arazoekin lotuta.

BIGARRENA.- ERABAKIA, “ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO HERRITARRAK AHALDUNTZEKO” LEGE-PROPOSAMENAREN AURKAKO 1/2016, 2/2016, 3/2016 eta 4/2016 ESKUMEN-ARAZOAK METATZEARI BURUZKOA.

Aurkeztutako eskumen-arazoak metatzeari buruz, ondoko hau erabaki da:

1. Aipatutako eskumen-arazoak metatzea hori justifikatzen duten arrazoi nahikoa daudela ulertzen baita.

2. Erabakia hartzeari begirako txostenak aurkezteko irizpideei dagokienez, honako hau erabaki da:

a) Javier Balza Aguilera batzordekideak Ebazpen Batzordearen jurisdikzio-eremua mugatzeari buruzko Txosten Nagusia egitea herri kontsulta eta herritarren parte-hartze prozesuei dagokienez.

b) Batzordearen lehendakaria den Juan Luis Ibarra Robles jaunak eskumen-arazoari buruzko txostena egitea kontrolatu nahi diren arautzei buruz dagoen ordezeko zuzenbide arloan.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

- c) Jose Ramon Bengoetxea Caballero jaunak artikulu zehatzak aurkaratzeari buruzko txostena egitea.

HIRUGARRENA.- ENTZUTEKO IZAPIDEA ZABALTZEA, EBLko 32. ARTIKULUAN AURREIKUSITA BEZALA.

Pasa den apirilaren 15ean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartzearekin, legegintza-aldaketa bat gertatu zen, zeinak eskumenak esleitzean eragina izan baitu, udalerrien eta autonomia-eta foru-erakundeen arteko lankidetzaharremanen alorrean (VII. Titulua), tokiko zerbitzu publikoen kudeaketan (VIII. Tituluan) eta udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketan (IX. Tituluan).

Eskumenaren eremuko den xedapen arauemaile hau, 2/2016 Legeko Zioen Azalpenean adierazten den bezala, legegilearen nahimenari erantzutera dator, hots *“arau integral bat ematea, hau da, lege-testu horretan definitzea EAEko udalaren kokapen instituzionala bai ekintza publikoaren esparruan, bai finantzaketa-esparruan. Hortaz, tokiko gobernuen eredu integratu bat antolatzea da kontua, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako bi maila instituzionalekin harmonian txertatuko dena, eta, horrela, autonomiaren barne-instituzionalizazioaren prozesua burutuko da, beldurrik eduki gabe guztien adostasunarekin aldatu beharreko araudia aldatzeko; horrek, batzuetan, esaterako, Lurralde Historikoen Legea deitutakoaren testua osatzea eskatzen du, eta noizbait, zehaztea eta zuzentzea ere bai”*.

Egiaztatu egin da partzialki bat datozela abian den prozeduran eztabaidagai diren eskumenen titulartasunari buruzko zenbait deklarazio-uziren funtsa (2015eko 1, 2, 3 eta 4 zk.ko eskumen-arazo metatuak) eta indarrean dagoen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eskumenak banatzean ezarritako aldaketak.

Deskribatu den ordenamendu juridikoan sortutako egoerak bideratzen du Ebazpen Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legeko 32. artikuluan aurreikusitako entzuteko izapidea zabaltzea. Emandako ahalmena ondoko erabakiaren bidez egikaritzen da.

**EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL**

ERABAKIA

Eten egiten da erabakia emateko epea. Aldi berean erabakitzen da prozedura metatu honetan agertutakoei aditzera ematea baita entzutea ere hamar egun balioduneko epe erkidean, ondokoari buruz:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak xedatutako eskumen-aldaketen eraginez, prozedura metatu honetan eztabaidagai diren posizio desberdinak defenditzeko bestelako ziorik egon daitekeen ala ez, udalerrien eta autonomia-eta foru-erakundeen arteko lankidetzaren harremanen, tokiko zerbitzu kudeaketaren eta udalerrien finantzaketaren alorrari dagokion eskumenen titulartasun kuestionatuari buruz.

LAUGARRENA.- “EAEko ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAKETA”-RI BURUZKO 1/2015, 2/2015, 3/2015 ETA 4/2015 ESKUMEN-ARAZO METATUEI BURUZKO EZTABAIDARAKO PROGRAMA BERRANTOLATZEA.

Erabakiaren zirriborroa hartu da Kepa Bilbao Gaubeka batzordekideak egindako aurrekarien atalari dagokionez.

Kepa Bilbao Gaubeka eta Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena txostengileei eskatu egiten zaie beren txostenak erabaki-proposamenaren zirriborroan txerta ditzatela. Era berean, Batzordearen hurrengo bilerarako uzten da Tokiko Ogasunei buruzko eztabaidarekin jarraitzea.

Nabarmentzeko moduko bestelako gairik ez dagoenez, amaitutzat jotzen da bilera hau, 19:45 direnean. Bertaratuei dei egiten zaie hurrengo bilerarako, 2016ko maiatzaren 31ko 17etarako Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan. Honako akta hau egiten da eta Batzordeko lehendakariak eta batzordekideek sinatu dute. Nik, idazkaria naizen honek, fede ematen dut.